

Eta hauen arrastoa beste hainbatek jarraitu dute. Esate baterako, hor ditugu Igor Eguren, Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Apalategi, Jon Aiestaran, Aitor Sarriegi, Alaitz Sarasola, Alaitz Alustiza, Haritz Zeberio eta egun etorkizun handia duten Oier Zurutuza, Aitzol Munduate, Iban Urdangarin eta Haitz Aierbe ataundarrak eta Irati Goikoetxea beasaindarra.

Goierriko Bertso Eskolak 18 urte hauetan Ordiziako Barrena Kultur Etxean eman ditu eskolak. Ikasleek ez dute sekula matrikularik ordaindu beharrik izan, eta honetarako ezinbestekoa

Bertso eskolako ikasleek ez dute sekula matrikularik ordaindu beharrik izan eta honetarako ezinbestekoa izan da Goierriko udalekin sinatutako hitzarmena

izan da Goierriko hainbat udalekin Goierriko Bertso Eskolak sinatuta duen hitzarmena. Bertan, herri bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera urtero diru laguntza bat emateko konpromisoa hartu zuten hainbat udalek, 10ek hain zuzen ere, eta gaur egun ere ezinbestekoa da laguntza hau eskolak aurrera eramaterako orduan.

Honez gain, urtero Ordiziako Jai Nagusietan udal- txepi azpiko arkupetan jartzen den tonbola ere diru iturri garrantzitsua da, ezinbestekoa hau ere ikastaroak doan izateko jarraitzeko. Irakasle- ei eman beharreko laguntza, garraioa, materiala, fotokopiak eta beste hainbat gastu badira, eta bestela ezin denei aurre egin.



Iban Urdangarin, Oier Zurutuza, Aitzol Munduate eta Haitz Aierbe ataundarrak, iazko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan.

ARTXIBOKOA

Ekintza ugari urtean zehar

Eskolak emateaz gain, bertsolariak trebatzeaz gain, bertsolaritzarekin zerikusia duten makina bat ekintza antolatu ditu Goierriko Bertso Eskolak heldutasuna lortu aurretiko urte hauetan guztietan. Besteak beste 99-00 ikasturtean aurrera eramandakoak gogoratu besterik ez. Urtea hastearekin batera, EUSKALDUNON EGUNKARIAREN alde bertso jaialdia egin zen Herri Antzokian. Apirila eta maiatza bitartean, Urretxu-Zumarraga-Legazpi eta Tolosaldeko bertso eskolekin batera antolatzen den Elkarrekin Bertsogintzan ekimena eraman da aurrera. Orain 5 urte sortu zen hau, bertso eskoletatik pasatako bertsolari gazteak jendaurrean trebatzen joan daitezela asmoarekin. Plazarik plaza ibiltzea da bertsolari ororen nahia, baina horretarako aukera gutxi batzuek izaten dute. Jendaurrean kantatzen ere ohitu egin behar da, eta horregatik, inguruko hainbat elkartetan bertso afariak antolatu eta gazteok bertsotan aritzeko aukera izaten dute.

Ekainean Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketari dagokio txanda. Aurten bederatziagarren aldian bete du Joxemiel Iztueta oraindik bizirik zela sortu zen txapelketa honek. Hiru mailatan banatzen da, gaztetxo, gazte eta helduak, eta azken biek gaia libre badute ere gaztetxoek *Itsasoa* zuten aurten gaitzat. 30en bat lan iritsi dira oraingoan, eta epaimahaikoen eskuetatik pasatu ondoren, egunotan ezagutuko dira irabazleen izenak. Sariak iraileko euskal festetan banatuko dira. Egun horietan, urteroko bertsolari jaialdi handia ere izango da; bertso eskolak 18 urte bete dituela eta, saio berezia antolatu dute aurtengo. Eta esan behar da Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ere maiatzean eta ekainean jokatu zela eta Goierriko Bertso Eskolako bertsolariak maila ona erakutsi zutela. Gipuzkoako txapelketan gaztetxoek mailan Aitzol Munduate, Oier Zurutuza eta Haitz Aierbe bigarren sailkatu ziren eta 14-18 urte bitartekoek mailan, berriz, Iban Urdangarin txapelduna izan zen. Ekainaren 30ean Mungian jokatu zuten Euskal Herriko txapelketako finalean Aitzol Munduate ataundarra bigarrena izan zen (iaz bezala) gaztetxoek mailan, eta Iban Urdangarin herrikidea laugarren izan zen handien mailan.

Irailean jaialdi berezia

Bertso eskolak lortutako heldutasuna ospatzeko asmoz, irailean Ordiziako euskal jaien barruan saio berezia prestatu dute aurtengo Argi Berri Elkarteko antolatzaileek. Irailaren 9an izango da ekitaldia. Bertan, hemezortzi urte hauetan bertso eskolatik pasatako 500dik gora ikasleak biltzeko asmoa dago Arboledan egingo den *lunch*-ean.

Antolatzaileek badakite denak biltzea zaila izango dela, baina gonbita behintzat denei helarazi diete. Ikasle eta ikasle ohiekin batera hor izango dira Goierriko Bertso Eskolaren historia honetan protagonista izan diren beste hainbat pertsona ere (udaletxeetako arduradunak, irakasleak, laguntzaileak, bertsolariak...).

Iluntzean, Herri Antzokia betetzea lortuko duen moduko ikuskizuna prestatzen ari dira hainbat eta hainbat bertsozale eta bertsolari. Kaleko jendeari nolabaiteko gonbita eginez hor arituko dira batzuk bertsotan atarian; ondoren, bertso eskolako argazkiz osatutako diapositiba emanaldi komentatua izango da; gero, bertso eskolatik pasatako ikasleek prestatutako bertso jarriak (musikaz lagundurik), bat-bateko saioa eta, azkenik, bertso eskolaren 18 urte hauek gogoratzeko asmoz, antzerkia izango da. Ezin ukatu edonor erakartzeko moduko saioa dela.

HAMABOSTEKARIA
GOIERRITARRA
Dorre Etxea, 1 - 124 Pk. - Tel.: 943 88 96 12 / Faxa: 943 88 27 19

GOIERRI OSORA
LEIHO BAT ZABALIK

ORDIZIA

EDER
ALTZARIAK, S.L.



Senpere, 6 - Tel.: 943 88 41 38
20200 BEASAIN



- Sukaldeak
- Bainugelak

Behar duzun neurrira eginak eta aukeratuak



Errekalde etorbidea, 59 (Aguila eraikina)
Tel.: 943 37 04 23 - 20009 DONOSTIA